

7.GAIA. EUROPAR BATASUNEN ORDENAMENDU JURIDIKOAREN ITURRIAK

Ezaguna dugunez sistema berezi eta argitaragabe baten aurrean gaude, sistema berezia, aldakorra eta zer esanik ez, konplexua. Egun oinarrian tratatuak ditugu indarrean daudenak (Lisboako tratatua), horrez gain **altxor komunitarioan** (acervo comunitario) biltzen dira, milaka eta milaka normatiba (60 urte hauetan bildu diren milaka eta milaka erabaki; hau da, erregelamenduak, parlamentuaren direktibak, erabakiak, egite administratiboak + jurisprudentzia osoa; Luxenburgoko auzitegiaren milaka sententziak; hau guztia osatzen dute altxor komunitarioa). Dakigunez, ez dago tipologia bat legearen inguruan, eta hori zailtasunak eragiten dute lengoia juridiko eta terminologiarengan, sistema juridiko ezberdinak, ez dago hierarkia definiturik; bestetik, PESC eta JAI, gauza diferenteak dira, Europar erkidegoari erkatuz eta nortasun propioa edukiz.

Guzti horrek ekartzen du zailtasun nabarmena ulertzeko Europar Batasunaren sistema zer nolakoa den, eta hauek ez dira arazo berriak. **1963.urtean Van Gend & Loss** sententziaren bitartez, auzitegiak esan zuen komunitatea orduko Ekonomia komunitatea, osatzen zuela ordenamendu juridiko propioa, ez bakarrik berria, hau da, obligazioak sortarazten zituena ez soilik estatu kideen artean baita ere hiritarren artean eta horri loturik hurrengo urtean **1964.an Costa vs Enel epaiaren** sententziak azpimarratu zuen sistema juridiko propioaren ideia. Beraz, azpimarratzekoa da tribunalaren eta batzordearen funtzioa hainbat urtetan komunitateari halako prestasuna emateko, auzitegiaren zeregina oso garrantzitsua izan baita. Esan dezakegu suma dibisio bat dagoela: batetik jatorrizko normak (tratatuak eta beren erreformak, adibidez) eta bestetik eratorrikoak (tratatuaren garapena). Horrez gain ulertu behar dugu batetik nazioarteko tipologia dugula (azken finean tratatuak nazioarteko tratatuak direlako) baina nazioarteko tratatu bereziak dira eta ezaugarri konstituzionalak dituzte (nazioarteko tratatuak ez dituztenak), hor agertzen dira botere batzuk, instituzio batzuk, prozedurak... Normalean nazioarteko tratatuetan agertzen ez direnak, bai ordea konstituzioetan. Oso tratatu luzeak dira, hainbat eta hainbat zatitan erregulazioak egiten dira eta oso erregulazio material espezifikoak egiten dira.

Eskumenen distribuzioa ere oso berezia da; eskumenen tipologia, Europar instituzioak bereganatzen dituzte hainbat ahalmen hainbat gauzetan batzuetan eskumen mugatuak, beste batzuetan estatu kideekin konpartituak.

Gero kontutan hartzeko dira ere nazioarteko tratatuak, nola hauen bitartez Europar Batasunaren eskumenak ere alda daitezkelako edota estatu kideen arteko akordioak, horiek ere gauzak alda ditzaketelako.

Bestalde kontutan hartu beharrekoa da, ez bakarrik tratatuak eta beren erreformak, baita ere atxikipen tratatuak, estatu bakoitzaren Europar Batasunarekiko loturak finkatzeko egiten diren tratatuak (atxikipen tratatu horiek ere kontutan hartzekoak direla); hau da, egia da estatu kide izateko zein ere

estatua behar duela bere burua konprometitzeko Europar Batasunarekin altxor komunitarioa onartzera baina egia da baita ere sinatuko den atxikipen tratatuan epe ezberdinak egon daitezkeela edo baita baldintza ezberdinak (ez dago atxikipen tratatu berdinak). Estatu kide izan ondoren hainbat arloetako zenbait estatu kideei egin zitzaizkien salbuespenak, esaterako; protokolo zenbaitetan agertzen direnak (Lisboako tratatuari atxikituriko protokoloetan); esaterako:

- 15.protokoloan: Irlandari eta Britainia Handiari ezaguturiko salbuespena ekonomia arloan, oso espezifikoa;
- 22.protokoloan: Danimarkari onarturiko salbuespena esaterako jabegoak erosteko Danimarkan
- Edo kanpo eta segurtasun politikarako
- Edo monetarako
- Edo barne eta justizia aferetarako
- 19.protokoloan: Schengen edo Karta Europarraren inguruko berezitasunak Poloniari eta Britainia Handiari egindako salbuespenak; Txekiari ere egin zioten halako salbuespen bat duela 10 bat urte.

Aplikazio eremuei dagokionez badago batetik **eremu materiala** (atribuzio printzipioak arautzen duena; Batasunaren instituzioek bakarrik jardun daitezkeela berauei atribututako eskumenetan baina gero hau ez da gauza hain garbia, nola batasuneko politikak loturik daudelako helburuetara eta hor holako margen bat dago atribuzio horretan malguago izateko), **eremu temporala** eta **eremu territoriala** (esaterako itsasoz haraindiko territorioak)

Europari dagokionez zenbait lurraldeetan batasunaren zuzenbidearen aplikazioa berezia da; esaterako Gibraltarren edo Åland irletan. Kanariar irlak ere badute estatus berezi bat periferikoak direlako, edo Azores eta Madeira.

Eremu temporalari dagokionez Europar Batasuneko Tratatuaren 53. artikulura jo beharko genuke eta eremu territorialari dagokionez 52.artikulura.

Berezitasunak ere badaude tratatuak erreformatzeko 58.artikuluari, prozedura ezberdinak, dena dela errebisioetarako unanimitatea eskatzen denez hori ekiditeko beste nazioarteko tratatu bat egiten dute, baina horren aplikaziorako batasuneko tratatua ezartzen dute.

Laburbildurik printzipioak zentsu batean izaera konstituzionala dute nazioarteko tratatu europarrak hainbat printzipio agertzen direlako:

- Atribuzio printzipioa agertzen delako Europar Batasuneko Tratatuaren 5.artikuluari.
- Subsidiaritate printzipioa baita ere Europar Batasuneko Tratatuaren 5.artikuluari.
- Heinekotasun (proportzionalitate) printzipioa Europar Batasuneko Tratatuaren 5.artikuluari ere.
- Edo diskriminazio ezaren printzipioa Europar Batasuneko Tratatuaren 6.artikuluari

Gero printzipio konstituzional horiez gain ere daude zuzenbidezko printzipio orokorrak esaterako: nazioarteko zuzenbide publikotik datozenak edo estatu kideetako zuzenbideetatik datozenak (esaterako atzeraezintasuneko printzipioa edo aktoen motibazioaren printzipioa edo konfiantza legitimoaren printzipioa eta nola ez segurtasun juridikoaren printzipioa...).

Badago ere publizitate beharra normak eraginkorrak izan daitezen Europar Batasunak badu bere egunkari ofizial, aldizkari ofizial eta hor argitaratzen dira erregelamenduak, zuzentarauak... baldin eta kodezizio prozeduraren ondorio badira, baita ere gainontzeko erregelamendu eta zuzentarauak Kontseiluarenak edo Batzordearenak badira eta helburu badute estatu kideak. Gainerakoentzat notifikazioaren bidez eskuratzen da indarrean sartzea (izan daiteke bide diplomatikoetatik edo buro fax baten bidez) eta oso garrantzitsua dena ere, zein ere egiteen motibazioa eta oinarri juridikoa atxiki behar zaie norma orori Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 253.artikuluaren xedatzen den legez.

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 288.artikuluaren egite juridikoak ditugu, bertan, erregelamenduak, zuzentarauak, irizpideak, gomendioak... aurkitzen ditugu; lehen hirurak sortzen dituzte efektu edo ondorio obligatorioak eta irizpideak edo gomendioak ordea ez, erregelamenduak zuzenduak dira estatu kideetara eta ahalmen orokorra dute, zuzenean aplikagarriak izango dira, zuzentarauak ordea beren aplikaziorako estatu kideengatik beharko dute transposizioa eta epe bat egongo da, notifikazioaren beharra... gero erabakia puntu guztietan bete beharrekoa izango da gomendioak eta irizpideak ez dira lotesleak, normalean esan ohi da bai erregelamenduak eta zuzentarauak zehaztasunez beteriko arauak direla, batzuetan hauen beharra ez da argi ikusi. 60 urte hauetan milaka eta milaka erregelamendu, zuzentarrak eta erabaki daude.